

EUSKAL HERRIA SOZIALISTA

Euskal Herriko aldizkari marxista

www.euskalherriasozialista.net

**Eskuina murrizketa
eta gure eskubideen
aurkako eraso gehiago
prestatzen ari da**

62 zenbakia - euro 1
laguntzarekin: 2 euro

**Mobilizaziora
itzultzeko
garaia da!**

- 
- 
2. Editoriala. Eskuina murrizketa eta gure eskubideen aurkako eraso gehiago prestatzen ari da.
Mobilizaziora itzultzeko garaia da!
6. Urriak 26: Ikasle greba orokorra. Errebalida frankistarik EZ
7. Venezuela: iraultza salbatzeko neurri sozialistak behar dira eta ez kapitalistak
12. Antolatu zaitez Ezker Iraultzailean!



Eskuina murrizketa eta gure eskubideen aurkako eraso gehiago prestatzen ari da

Mobilizaziora itzultzeko garaia da!

Erregimen kapitalista espainiarrak bizi duen krisi sakona agerian utzi du abenduaren 20ko hauteskundeen ondoren gobernu ezin osatu izanak. PP eta PSOEren arteko alternantzia garaia lehertu egin da eta parlamentuan ezegonkortasun kronikoa areagotu da, handinahi eta iruzurgileek hitzontzikeriarekin pagotxa biltzen duten bitartean.

Ekainaren 26ko hauteskundeen ondoren ere egoera ez da aldatu. Beste hainbatetan azaldu dugunez, eskuinaren aurkako etengabeko mobilizazio tinkorik ez egoteak eragin du hauteskundeetan eskuinerantzko mugimendu txiki bat egon izana,

irailean Galizian eta Euskal Autonomia Erkidegoan gertatu bezala. Dena den, eskuinerako mugimendu hau oso ahula da, eta zalantzen eta anbigutasunaren ondorioz, langile eta gazteak hauteskundeetan desmobilizatu egin direlako gertatu da. Hau da, hiri handietan Podemoseko zuzendaritzaren gestioak, deriba sozialdemokratak eta mobilizazioa berreskuratzea ukatu izanak eragin ditu emaitza horiek.

Testuinguru honetan ulertu behar dugu PSOEren krisia eta parlamentario sozialisten abstentzioarekin Rajoy Presidente izendatzeko erabakia; erabakia horretan

da behintzat editorial hau idazteko unean.

Urriaren 1eko Komite Federal kaotiko hark Pedro Sanchez dimittitzera behartu eta zuzendaritzatik kendu ondoren, poz eta konfiantzazko egoera piztu baino, zalantza handia eragin du. Lehian dauden oinarritzko arazoak ez dira konpondu, eta Felipe Gonzalezen, Susana Diazen eta barioen inguruan antolatutako kolpisten garaipen pirrikoak klase arteko borrokan egon den korrelazio aldaketa uzten du agerian. PSOEren abstentzioa inposatu eta Rajoy presidente izendatzeko maniobra basati hau finantza oligar-



kiak eta enpresa handiek erabaki eta planifikatu dute, eta oinarri eta boto-emaile sozialista gehienak aurka agertu dira.

Sozialdemokraziaren krisia, mundu mailako fenomeno

Sozialdemokrazia espainiarra lehererrarazi duen krisi hau Europako gainerako herrialdeen sintonia berean dago; klase dominatzailearekin fusionatzearen ondorio da. PSOEk, Zapaterorekin hasi eta Rubalcabarekin jarraituz, 2011z geroztik izandako porrotak zuzenean daude loturik murrizketak eta bankari mesede

egiteko konstituzioa erreformatzea babestu izanarekin; nazionalismo espagnolista higuigarriari emandako babesaren eta, zer esanik ez, beren burua gobernabilitate kapitalistaren txapeldun direla aldarrikatu izanarekin. Estrategia politiko horrek jarri du PSOE argazkiaren eskuin aldean. Podemos agertu eta alderdi sozialistaren boto-emaileen erdia eskuratu izana krisi agonikoaren oinarritzko joeren erakusle garbia da.

Langile eta gazteen artean ezkerreko biraketa bat dago, eta hau argi ikusi da aurrekariak 70eko hamarkadako frankismoaren aurkako

borrokan dituen mugimendu sozial bikainean. M15, greba orokorra, Duintasun Martxak, Marea Berdea, Marea Zuria, ikasle mobilizazio erraldoiak, Gamonaleko altxamendua, erabakitze eskubidearen aldeko manifestazioak Catalunyan, presoak gerturatzearen aldeko manifestazioak Bilbon... Milioika langilek, gaztek eta pobretutako kapa ertainak bizkarra eman diote PSOERI.

Klase arteko borrokak azaltzen du PSOE suntsitzen ari den krisiaren gordintasuna eta izaera; eta auzi historiko batean ezarri du: Grezian PASOK alderdiak hartutako bidea jarraitzea eskuinaren laguntzaile eskas bilakatu arte edo burgesiaren menderakuntza suntsitu eta birsortzea eta borrokatzen duen ezkerrearen eredu bilakatzea.

Gertaerek erakusten dutenez, bigarren bidea hartzea nahiko zail dago. PSOEko aparatua, bai zuzendaritza federala, bai territoriala, oligarkiarekin estuki loturik dago; eta abenduaren 20aren ondoren egingako akatsek ere egoera honetara ekarri dute. Pedro Sanchez Ciudadanosen babesarekin Gobernuako Presidente izendatzeak —murrizketa eta herstura politikak jarraituko dituen itun batekin— porrot egin duen modu miserablean. PP 2.0 alderdiarekin osatutako gobernu hark ekarriko al luke aldaketarik? Pedro Sanchezen estrategiak agerian utzi zuen iruzur hutsa zela eta alderdia egoera kritiko batera eramango zuela zuzenean.

Ez du indarra erakutsi, ahultasuna baizik

Burgesiaren aldeko jarrera nabarmena duen PSOEko sektorea egoera delikatuan dago: maskara guztiak erori dira, “baroien” hitzontzikeria demagogikoa agerian geratu da eta PPren eremura pasatu dira. Kolpistek izendatutako gestorak erabakitzen badu Komite Federalak Rajoyren izendapenean abstenitzea eta militantziaren erabakitze eskubidea ukatzea, krisia areagotu egingo da.

Bide hori hartzen badute, teorikoki ezin da baztertu PSOEko parlamentario talde batek diziplina hautsi eta Rajoyri ezezkua ematea. Dena den, talde parlamentarioaren haustura edo batasuna gorabehera, Rajoy modu honetan presidente izendatzeak PPren gobernuari iruzur eta ilegimitimate marka ezarriko lioke, eta hau ez dator bat burgesiak bere plana aurrera eramateko behar duen egonkortasun politikoarekin. Aukera honekin, hirugarren hauteskundeak izatea saihestuko luke, baina gobernu oso ahula eratuko litzateke, PSOEren militantziak zалан-tzan jarriko luke eta, berandu baino lehen, masen mobilizazio batekin egingo luke topo. Gainera, klase dominatzaileak azken berrogei urteetan oinarritzko izan duen faktorea galduko luke: langile mugimendua kontrolatu eta frenatzeko gaitasuna duen PSOE batua.

Alderdi Sozialistarekin gertatzen dena gertatzen dela ere, *pasokizazio** indartsuari eta eszisia eragin lezakeen barne zatiketari aurre egin beharko dio, eta honek Unidos Podemosek erabateko sorpassoa eman dezan erraztuko luke.

Zergatik irabazi du EAJk emaitza hobeagoekin?

Gako horiek jarraituz ulertu behar dira irailaren 25ean izandako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak ere. EAJk 397.664 botorekin, orain dela lau urte baino 12.898 gehiago, 27 diputatutik 29 izatera pasa da eta eskuineko nazionalismo euskaldunarekin identifikatzen diren geruza ertain zabalak bozka erabilgarria eskuratu du, baina baita ezkerrearen gehiengoa geldiarazteko mobilizatu dute sektore kontserbatzaileetakoa ere, nahiz eta azkenean EH Bildurentzat izan den lehian zegoen azken eserlekua eta, beraz, ezkerrek irabazi duen. Oso esanguratsua dira Ciudadanosek porrot egin izana eta Gasteizko Parlamentutik kanpo geratu behar izatea eta PPK bozka potentzial hori ezin lor-

tu izana, lehen UPDk egiten zuen bezala. PPKo agintariekin hauteskunde gauean bota zituzten hitzek ezin dute ezkutatu 23.227 bozka galdu dituztela (107.357rekin geratzen dira) eta diputatu bat galdu dutela (10etik 9ra pasatzen dira).

Abstentzioa 2001az geroztik hauteskunde autonomikoetan izandako handiena izan da; %37,74ra irisi da. 640.000 bozka baino gehiago etxean geratu dira. Gertakari honek, bereziki, PSEri eragin dio, baina Elkarrekin Podemos ere kaltetu du, batez ere 10.000 biztanle baino gehiagoko hirigune indutrialetan. Irunen abstentzioa %44koa izan da, Sestaon %43a, Barakaldon Santurtzin, Ermuan, Andoainen eta Erreterian abstentzioak batez bestekoa gaitu du; aldiz Laguardian (arabar Errioxako hiriburua, bertan PPK irabazten du) abstentzioan %31 izan da.

PSOEek porrot egin du, EH Bildu mantendu egin da eta Elkarrekin Podemosek espero baino gutxiago lortu du

PSE-PSOEek aurreko legegintzaldian EAJren gobernu babestu du eta diskurtso atzerakoia erabili du euskararena bezalako oinarritzko

gaietan; askotan PPren eta UPDren diskurtso berbera izan du. Gainera, berarekin ekarri du estatu mailan murrizketa sozialen arduradun iza-teagatik daukan karga: 212.809 boto zituen 2012an, oraingoan 126.139 lortu ditu; alegia, 86.670 boto eta 7 diputatu galdu ditu. 1980az geroztik lortu dituen emaitza txarrenak. Zifra agoniko hauek eragin nabarmena izan dute estatu mailan ere, eta PSOE barneko tentsioan antzeman da.

PSE-PSOEren krisiak eta eskuineko politikarekin duen fusioak lekua utzi diete Elkarrekin Podemosi eta EH Bilduri. Dena den, azpimarratu behar da kanpaina oso nabarmena izan dela Elkarrekin Podemoseko eta EH Bilduko agintariekin EAJri fronte politikoa eskatzeko egindako aldarrikapenak. Ezker abertzalearen zuzendaritzaren kasuan, ez du aukerarik galdu eskuin nazionalistari “erabakitzeko eskubidea eta konkista sozialak defendatzeko murua” eraikitze eskua eskaintzeko. Elkarrekin Podemosen kanpainak Errejonen eragin handia izan du eta beren “transbertsalitate” eta “zentralitate” mezuekin eta “Jendearekin / Por Euskadi” lelo hutsarekin ere “euskal itun soziala” aldarrikatu dute, funtsean





EH Bilduk eskaintzen zuenaren antzekoa, eduki aldetik behintzat. Noski, proposamen hauekin EAJk ez du oposiziorik izan azken lau urteetan, eta ez du oposiziorik izan hauteskunde kanpainan. Zergatik eraso egin EAJri, ezkerreko indarrek aliatutzat hartua bazuten? Noski, proposamen hauekin EAJk ez du oposiziorik izan azken lau urteetan, eta ez du oposiziorik izan hauteskunde kanpainan. Zergatik eraso egin EAJri, ezkerreko indarrek aliatutzat hartua bazuten?

Egia da Elkarrekin Podemos Bizkaian indartsu mantendu dela, bigarren indarra izatea lortu baitu Bilbon, Barakaldon, Santurtzin eta Sestaon; baina baita Gasteizko langile auzo batzuetan ere, horietan EH Bilduren gainetik dago. Hala ere, ezin dugu ahaztu Podemosek irabazi zituela abenduko eta ekaineko hauteskundeak EAEn EAJren gainetik, beraz, autonomikoetan emaitzak EH Bilduren parekoak izango zirela aurreikusten zen, baita galdeketeran ere.

Galdeketen arabera, ezker abertzalearekin lehia izan behar zuen bigarren indarra izateko, baina Elkarrekin Podemosek Equo eta Ezker Anitzarekin batera lortu di-

tuen emaitzek, 11 eserleku, ezker abertzalea lidergo sendoan jarri dute: hauteskunde orokorretan ekainean Podemosi utzitako 71.472 boto berreskuratu ditu.

Emaitza hauek azaltzeko orduan, oinarritzako faktorea izan da Arnaldo Otegiaren inhabilitazio bidegabeara. Eskubide demokratikoen aurkako eraso amorratua ezker abertzalearentzat oztopo izan baino gehiago indarra eman dio. Podemosek, aldiz, izen handiko lehendakari gisa bilatu zuen, kasu honetan Pilar Zabala, hautagai independentea, Felipe Gonzalezen gobernuaren agindua betetz GALEk erail eta kare bizian lurperatu zuen Joxi Zabalaren arreba. Ezker abertzaleak, Otegi aske geratu ondoren, eta Podemosek baino militantzia indartsuagoa eta aparatu sendoagoa duenez, hauteskunde orokorretan galdutako eremua berreskuratzeko borroka egin du; eta Arnaldo Otegi erabili du kapital politiko indartsu moduan. Hain zuzen ere, EH Bilduren zuzendaritza gogor saiatu da azken hilabeteetan kaleko mobilizazioa sustatzen; gainera, kanpaina honetan barne egituretara ere zabaldu da militantzia eta ingurunea astintzeko. Esfortzu honek, bestal-

de, zuzendaritzaren politika instituzional eta kartzeletako politikarekin oso kritiko diren militante sektore batek eragindako zatiketari ere erantzun nahi izan dio. Nahiz eta hauteskunde orokorretan galdutako boto batzuk berreskuratu dituen, EH Bilduk 53.669 boto galdu ditu 2012ko hauteskundeekin konparatuta: 277.923tik 224.254 jaitsi dira.

Ezkerreko Fronte Bakarra eraiki behar da, autodeterminazio eskubidearen alde eta murrizketen aurka

Emaitza hauek ezker abertzaleko zuzendaritzari mahai gainean jarri dioten arazoa garbia da: EAJrekin aliantza estrategikoaren proposamenarekin jarraitzea edo politika honekin bukatu eta Urkulluk inposatutako murrizketa eta hertsuren aurkako mobilizazio sozial tinkoaren bidea defendatzea eta borroka hau eskubide sozialen eta autodeterminazio eskubidearen eta Euskal Herri sozialistaren aldeko borrokarekin lotzea. Alegia, euskal burgesiarekin kolaboratzea edo kapitalismoa kolokan jarriko duen klaseko politika independente defendatzea.

Hori dela eta, Ezker Iraultzaileko kideok uste dugu EH Bilduko zuzendaritzak lehendakariagaia EAJri aurre egingo dion programa iraultzaile batekin aurkeztu behar duela eta ez lukeela akordiorik lortu behar euskal burgesiaren alderdiarekin; ez gobernu akordioa, ez legealdi ituna edo ez kide nagusi izanda. Azken bide hori hartuz gero, erabakitze erabakia ez legoke hurbilago, euskal presoak ez lirateke Euskal Herriko kartzeletara gerturatuko eta ez litzateke osasuneko, hezkuntzako eta zerbitzu sozialetako murrizketek eta gazteriaren langabeziak eragindako amesgaiztoa bukatuko.

EH Bilduko agintariak etorkizunerako eredutzat hartu dituzte Nafarroako Gobernuan edo Gasteizko Udalean EAJrekin lortutako akordioak. Ahaztu dute Gasteizen EH Bilduk atzera egin duela eta bigarren indar izatetik laugarren izatera pasatu dela, EAJren, PPren eta Podemosen atzetik. Egoera honetan, ez da harritzekoa Barakaldon, Portugaleten, Santurtzin edo Ermuan laugarren edo bosgarren posizioa jaitsi izana. EAJrekin akordioak lortzeko politika honek euskal burgesiari bakarrik egiten dio mesede eta langile klasea ahuldu du.

EH Bildu Elkarrekin Podemos kritikatu du EAJrekin ituna sinatzearen aurka agertu eta zuzenean oposizioa pasatu delako. EH Bilduk eskatu dio gobernu-oposizio “eredu zorrotzak” hausteko. Zer esan nahi du horrek? Zer esan nahi du Mirren Larrionek “Gobernuaren barne-tik edo kanpotik gobernatzea” EAJrekin? Honek esan nahi duena da EAJri beste lau urteko bake soziala bermatu nahi zaiola, hain zuzen ere, EAJk gogor jazarri zituen herri harrerien aurkako epaiketak hastera doazen unean. Ondo asko sufritu genuen Ertzaintzaren eta Udaltzaingoaren jarrera Gasteizen pertsona bat etxetik kaleratu behar zutenean, errebalida frankisten aurkako ikasle mobilizazioak izan zirenean, etab. Nori egiten dio mesede ezker abertzaleko zuzendaritzak proposatzen duen politika egiteko modu horrek?

Sortuk urtarrilaren 21eko kongresuan bukatuko den birfundatze prozesua abiatu du, baina borrokatzen duen ezkerren zuzendaritza berreskuratu eta eraldaketa sozialaren bultzatzaile izan nahi bado, zuzendaritzak programa sozialista bere egin behar du. Bidea ez da euskal eskuinarekin aliantzak egitea; klaseko Fronte Bakarra osa-

tzea baizik; ezkerreko erakunde politiko eta sozialekin elkartzea eta Euskal Herriaren eta langile klasearen eskubide sozial eta demokratikoak benetan defendatzea. Bestalde, Elkarrekin Podemosek ezin dezake datozen lau urteetan bere ekintza arlo instituzionalera mugatu. Azken urteetan izandako altxamendu sozialetik atera den indarra da eta kalea berreskuratu behar du, ezker abertzalearekin, autode-terminazio eskubidearen eta sozialismoaren aldeko borrokan.

* Pasokizazioa esatean, PASOK alderdi sozial-demokrata greziarrak Demokrazia Berriarekin batasun nazionalako gobernu osoa osatzeko eta murrizketak eta heretura politikak onartzeagatik ordaindu behar izan duen porrotaz ari gara. PASOK alderdiak 2009ko urriaren 4ko hauteskundeak irabazi zituen (botoen %43,9 eta 160 diputatu). 2012ko maiatzeko hauteskundeetan babes gehiena galdu zuen: botoen %13 eta 41 eserleku lortu zituen. Orduko hartan, Demokrazia Berriak garaitzeaz gain Syriza ere aurrea hartu zion. Gobernurik osatu ezin zenez, hauteskundeak egin ziren berriro 2012ko ekainean eta PASOKek antzeko emaitzak lortu zituen: %12 eta 33 eserleku. 2015eko hauteskundeetan parlamentuan ordezkaritza txikia lortu zuen: 13 eserleku eta botoen %4,7. Emaiza oso gutxi hobetu zen urte hartako irailean zentro-eskuineko alderdiarekin koalizioan joanda: botoen %6,2 eta 17 eserleku.





Lau urte murrizketa basatiak egi-ten igaro ondoren, Alderdi Popularrak erasora jo du, beste behin, gazte eta langile familien aurka. Udako hilabetetan, Rajoyren gobernuak dekretuz eta ezkutuan, hamarkadetan izan den hezkuntza publikoaren aurkako erasorik handiena onartu du: errebalida frankistak indarrean jar-tzea 2016/17ko ikasturte honetarako. Helburua argia da: familia xumeetako milaka gazte hezkuntza sistematik berehala kanporatzea.

Zer dira errebalida frankista eta nola eragiten digute?

Errebalidek egungo selektibitatea hirukoiztea ekarriko dute eta izugarri gogortuko ditu titulu bat eskuratzeko baldintzak:

- **DBH 4ko errebalida:** Gainditz-en ez duenak ezingo du Batxilergora joan eta ez du DBHko titulua jasoko, nahiz eta irakasgai guztiak gaindituak eduki. Honek lan merkatura titulazio-rik gabe ateratzea ekarriko luke.

- **2. Batxilergoko errebalida:** Gainditu ezean ikaslea ezingo da uni-bertsitatara joan eta ez du Batxilergo-ko titulua eskuratuko irakasgai guztiak gaindituak eduki arren. Ondorioz, lan merkatura DBHko titulu hutsarekin bakarrik aterako da.

- **Unibertsitaterako sarbide errebalida:** Azkenik, legeak ireki-ta uzten du hirugarren selektibitate baten aukera unibertsitate bakoitzar-ren kontura.

PP eta EAJ-PNV aliatuak hezkuntza publikoa suntsitzeko

Errebalidek ez dute hezkuntza kalitate hobetzea helburu, baizik eta filtro gisa erabili nahi dituzte familia xumeetako milaka eta milaka ikasle ahalik eta azkarren eta inolako kualifikaziorik gabe lan merkatura jaurti-tzeko. Eraso honen oinarrian PPK defen-datzen duen eta EAJ-PNVk guztiz babesten duen eredu soziala dago: ge-hiengoarentzat prekaritatea eta es-plotazioa, gutxiengo pribilegiatu bat errege moduan bizitzeko. Urkulluren gobernuak LOMCeri eta murrizketei kontrajarri nahian erabiltzen duen

erretorika erabateko kontraesanean dago errealitatean aurrera eraman duen praktikarekin: murrizketak, di-rua itunpeko ikastatzeei oparitzea pu-blikoaren kontura, irakasleak kalera-tzea eta LOMCEa aplikatzea. Beraiek, PPK bezala, langile familiei hezkun-tza eskubidea kentzea dute helburu.

Urriaren 26an denok grebara!

Ikasle Sindikatuak eta Euskal Herria Sozialistak matxinadara deitzen du-gu gazteria, datorren urriaren 26an ikasgelak hustu eta kaleak manifes-tazio masiboekin betetzeko deia egi-ten dugu. Era berean, dei egin na-hi diegu Ikasle Abertzaletako kideei eta hezkuntza komunitatearen osota-sunari —gurasoak, irakasleak, sindi-katuak ELA, LAB, CCOO y UGT—, guztiok batera atera gaitezen eta hau lehen pauso handi bat izan da-din borrokan, errebalidak eta LOM-CE atzera bota arte mantentzeko eta zabaltzeko.



Venezuela: iraultza salbatzeko neurri sozialistak behar dira eta ez kapitalistak

Irailaren 22an Venezuelako Hauteskunde Batzorde Nazionalak (CNE) iragarri zuen Nicolas Maduro presidentea kargutik kentzeko edozein erreferendum 2017ko urtarrilaren 10aren ondoren egin behar dela. Gisa honetako erreferendumak arautzen dituen araudiaren arabera, kargutik kentzea lortuta ere, Presidenteordeak ordezkatuko luke Presidentea, eta ez lirateke hauteskundeak egingo 2019ra arte.

MUDen antolaturik dagoen eskuin kontrairaultzaileak hautesleentzen %20aren sinadurak jasotzerara deitu ditu bere oinarriak, beharrezko baititu erreferenduma eskatzeko; eta urriaren 12rako kaleak hartzeko deia egin zuen hauteskundeak aurten izan dai-

tezela “behartzeko”. Beren nahia inposatzea lortu eta 2016an Presidente kargutik kentzea lortzen badute, presidentetzarako hauteskundeetarako deia egin lezakete berehala. Irailaren 1ean “Hartu Caracas” leloarekin egin zuten bezala, Gobernua negoziatzera behartu nahi dute. Honek amore ematen ez badu, urriaren 12an aurrez aurreko indar neurketa izango da, eta helburua desegonkortze kanpaina izango da, inperialismoaren ofentsiba diplomatikoaren laguntzarekin. Horrela estatu aparatua pitzatu eta armadaren sektore bat interbentzioaren alde bereganatu nahi dute. Beti azaldu dugunez, erreferenduma aitzakia da. Burgesiaren helburua Mirafloresko Gobernua es-

kuratzea da eta Macri Argentinan eta Temer Brasilén aplikatzen ari diren politikak Venezuelán ere aplikatzea. Azken finean, Venezuelako iraultza suntsitu nahi dute.

Eurentzat arazoa da momentuz ez dutela hauteskundeetan lortutako babesa arrakastaz boterea hartzen lagunduko dion mobilizazio bilakatzen. Komunikabide burgesek gezurra esan eta “milioika pertsonen Venezuelako kaleak hartu zituztela” zioten, baina irailaren 1ean MUDek aurreko martxa arrakastatsuak berdindu zituen arren, aurreikuspenetatik urrun geratu zuen. Kapa ertainak mobilizatzea lortu zuen, baina ez zuen herritar sektoreen, ez behintzat langile klasearen, zati nagusia mobilizatzea lortu.



Freddy Guevara agintarietako batek kamera aurrean onartu behar izan zuen kideetako batzuk kaleei su ematera zihoazenean: “Ez dago nahikoa jende”.

Abenduaren 6aren ondoren azaldu genuenez, eskuinak langile eta herritarren eskualdeetan aurrera egin izana mehatxu larria zen, baina politika sozialista eta iraultzaileekin berehala baretu zitekeen haserrearen botoa zen. Jatorrian MUDeko alderdi eskuindarren eta ultraeskuindarren programa eta interesak oso atzerakoiak dira, bertako agintariak inperialismoarekin eta burgesiarekin bat eginda daude eta oso zaila dute langile klasearen eta herritarren haserrearekin bat egiteko.

Hala ere, akatsa litzateke pentsatzea horrek horrela izaten jarraituko duela eta begiak itxi behar direla gobernuak aplikatutako politiken aurrean herritarrek duten haserrea eta ezinegona ez ikusteko. Irailaren 1ean Gobernuaren alde antolatutako manifestazioak abenduko hauteskundeetako kanpainaren itxierak baino jende gehiago bildu zuen, baina parte hartzea iraultzako beste momentu garrantzitsuetan baino baxuagoa izan zen. Tsunami gorriak 2002ko apirileko kolpea geldiarazteaz gain, 2004an Presidentea kargutik kentzeko erreferenduma ere irabazi zuen, 2006ko eta 2012ko Chavezen kanpaina itxierak askoz masiboagoak eta indartsuagoak izan ziren, baita 2013ko Maduro-

rena ere Capriles garaitu aurretik. Eta orain azken 18 urteetako ofentsiba kontrairaultzaile okerrenaren aurrean gaude!

Burokrata askok zinikoki diote “kontzientziaren atzerakada” dela guztiaren arrazoia, baina hori Chavezek proposatutako neurri ezker-tiarrek bazterrean uzteko aitzakia besterik ez da. Arrazoia enpresariekin aliantzak aurkitzeko politikak eta honen ondorioz aplikatu dituzten neurri kapitalistak dira.

Aliantzarik ez enpresariekin! Botere osoa langileentzat eta herriarentzat

Abenduaren 6aren ondoren, milaka ekintzailek ezkerreko biraketa espero zuten, baina enpresarien eta Gobernuaren artean adostutako prezioen gorakadarekin, kanpo zorraren ordainketa puntualarekin (herritarren egoera okertzen ari den honetan) eta Venezuelaren %12a multinazional inperialisten esku uzten duen Arco Minero planarekin egin dute topo; plan honek ondorio ekonomiko oso larriak ekarriko ditu bai herrialdearentzat eta bai ingurugiroarentzat.

Eskuinerantzko biraketa honen parte da Industria ministro eta ekonomia lehendakariorde izendatzea Miguel Perez Abad “enpresari bolibariarren” liderra eta Eulogio del Pino PDVSAko eta Petrolio Energia Ministerioko presidente; azken honen lotura estuak ditu nazioarteko burgesiarekin eta petrolio enpresa multinazionalarekin. Biek defendatu izan dute enpresariei kontzesioak egin behar zaizkiela, lehenbailehen kendu behar dela prezioen kontrola, desjabetu diren enpresak aurreko jabeei itzuli behar zaizkiela eta beste batzuk pribatizatu behar direla eta orain arte izozturik egon diren oinarritzko zerbitzuen prezioak igo behar direla. Horren adibide izan zen internet eta telefono tarifa %1000 igotzeko erabakia, nahiz eta azkenean herritarren presioari esker atzera bota zuten.

Horrek guztiak ez du balio izan inbertsioak eta ekoizpena igotzeko; aitzitik, masak gehiago desmoralizatu ditu, ustelkeria eta sabotajea areagotu ditu eta langileen lan eskubideek eta eskubide sozialek murrizketak jasan dituzte, bai alor publikoan baita pribatuan ere. Gainera, kaleratze masiboan izan dira; besteak beste, Venezuelako Alderdi Komunistak salatu duenez, Bicentenario Elikagai Sarean izandako 4.000 kaleratzeak.

Herritarren bizi baldintzak okertzeak armadak zapaldu dituen arpilatzeak eta arpilatze saiakerak eragin ditu lehen aldiz; gainera, horiek orokortzeko benetako arriskua egon da. Halakoak saiheste aldeira, gobernuak zenbait neurriekin erantzun du, besteak beste CLAPEkin. Hau Gobernuak, eta ez oinarriek edo batzordeek, aukeratutako organismo bat da eta Gobernuak lehenetasuna eman dieten herritar se-

ktoreei janari poltsak ematen dizkie. Telefono tarifaren igoera ere bertan behera geratu zen eta Perez Abad, Del Pino eta beste ministro batzuek proposatutako zenbait neurri atzeratu egin zituzten. Perez Abad berarekin ordezkatu eta banku publikoko Presidente izendatu dute.

Zuzenketa partzial hauek, ordea, ez dute aldatu gaur egun Gobernuan dauden sektoreen estrategia. Sektore horiek enpresariekin aliantzak lortu nahi dituzte, baina enpresariek eskatutako neurri kapitalistak mantso-mantso aplikatu nahi dituzte beren efektua lausotzeko. Zenbait ministrok esandakoaren harira, inperialismoari, edo honen sektore bati, ulertarazi nahi diote gai direla Venezuelako kapitalismoaren krisia MUDek baino hobeto kudeatzeko eta munduko ekonomia hobetu eta petrolioaren prezioak erreperatu bitartean denbora irabazteko.

Arazoa da munduko ekonomia-
ren joerak kontrako bidean daudela, eta burgesiak ez du amore emango iraultza suntsitu arte. MUDek antolatutako mobilizazioek eta presio diplomatikoak ez badira gai izan Presidente kargutik kentzeko erreferenduma inposatzeko, posible da Venezuelako eta nazioarteko burgesiak gobernu bolivartarrari denbora ematea, negozioak egiten, eskulatzen eta sabotatzen jarraitzen duten bitartean. Horrek kontrairaultzari bakarrik egingo lioke mesede eta masen moralia zulatzen jarraituko luke Miraflores asaltatzeko prestatzen den bitartean. Iraultza salbatzeko modu bakarra dago: chavismoaren oinarriek, langileek eta herritarrek, benetako iraultza egitea iraultzaren barnean, kapitalistak desjabetzea, burokrasia suntsitzea eta eta botere politiko eta ekonomikoa langile eta herritarren esku uztea.



ANTOLATU ZAITEZ

EZKER IRAULTZAILEAN!

ESKUINAREN MURRIZKETEN ETA GURE ESKUBIDEEN
AURKAKO ERREPRESIOAREN AURKA!

KONTRAPORTADAN HASTEN DA

Ikasle Sindikatuak urriaren 26rako hezkuntza komunitateko greba orokorrera egindako deia adibide bikaina da. LOMCEk eta errebalida frankistek milaka gazte bigarren hezkuntzatik kanporatu nahi ditu, eta unibertsitaterako sarbidea itxi nahi diete. PPreu Gobernuaren motibazioa hauxe da: langile familietako gazteen etorkizuna prekarietatea eta lan zapalkuntza bada, zertarako gas-tatu dirua beren hezkuntzan?

Ezker Iraultzaileak aktiboki babesten du U26ko ikasle greba, eta uste dugu mobilizazio soziala berreskuratzeko abiapuntutzat hartu be-

har dela. Hori dela eta, EH Bilduko eta Elkarrekin Podemoseko zuzendaritzei eskatzen diegu ez daitezela mugatu Parlamentuko oposizioa, ez dezatela itunik egin EAJrekin eta ez daitezela erori sistemako gainerako alderdien planteamenduetan. Masen mobilizazioa sustatzeko ardura dute, M15ekin, greba orokorrekin eta gure herriaren eskubide demokratikoen al-

deko borrokarekin hasitako borroka berreskuratu behar dute.

Antolatzeke garaia da!

Ezker Iraultzailea osatzen dugun Euskal Herriko langile eta gazteok Ikasle Sindikatu, langile klasearen borroketan eta mugimendu sozialetan parte hartzen dugu programa antikapitalista, sozialista eta internazionalista defendatuz. Ez gara konformatzen noizean behin bozkatzera joanda. Aritmetika parlamentarioek ez dute lortuko euskal burgesiaren edo burgesia espainiarraren edo europarraren planak atzera botatzea. Kapitalistak garaitu nahi baditugu, azken urteetan eskuina kinka larrian jarri duen altxamendu sozialean sakondu behar dugu; eta borroka hau antolakuntza iraultzaile bilakatu behar dugu gure ikastetxeetan, enpresetan, lantokietan, herri, hiri eta auzoetan. Herriak bakarrik salba dezake herria.

Antola zaitez Ezker Iraultzailean!

Parte hartu Ezker Iraultzailearen taldeetan unibertsitatean, institutuan eta lantokietan!

Helbide hauetan bat egin dezakezu gurekin:

www.euskalherriasozialista.net / www.izquierdarevolucionaria.net

- LOMCE, errebalida frankistak eta 3+2 atzera botatzearen alde. Hezkuntza publiko duina, demokratikoa eta doakoa haur eskolatik unibertsitatera bitartean.
- Osasun duina, doakoa eta unibertsala guztiontzat.
- Etxe kaleratzeak legez debekatzea. Etxebizitza publikoak alokairu sozialekin, bankuen esku dauden etxebizitza hutsak desjabetu behar dira!
- Lan erreformak eta pentsioen erreforma indargabetzea. Erretiroa 60 urterekin, soldataren %100arekin eta gazteentzat errelebu kontratuarekin.
- Benetako elkartasuna errefuxiatuekin: ez kuporik, zentro itxirik! Atzerritarren Legea indargabetu behar da eta CIEak itxi!

- Pribatizatu dituzten zerbitzu publikoan bermunizipalatu behar dira, langile kopurua mantendu edo handiagotuz eta lan eskubideak bermatuz.
- 1.100 euroko oinarritzko soldata eta 35 orduko lan astea soldata jaitsi gabe.
- Adierazpen, elkartze eta antolatze eskubideak bermatzea. Mozal legea indargabetzea.
- Bankaren eta ekonomiako sektore estrategikoen nazionalizazioa pertsonak salbatzeko eta gehiengoaren ongizatea bermatzeko.
- Catalunyaren, Euskal Herriaren eta Galizaren autodeterminazio eskubidearen alde. Euskal Herria sozialistaren eta errepublika sozialistaren alde.

ANTOLATU ZAITEZ EZKER IRAULTZAILEAn!

ESKUINAREN MURRIZKETEN ETA GURE ESKUBIDEEN AURKAKO ERREPRESIOAREN AURKA!

Ekainaren 26ko hauteskunde on-doren, etengabe izan dira eskuineko gobernua osatzeko saiakerak. Prozesu honen parte da IBEX 35ek antolatu eta Felipe Gonzalezek, Susana Diazek eta "baroiek" areagotu duten PSOEren krisia. Kapitalisten helburua da gobernu berriak murrizketak inposatzen eta gure oinarritzko eskubide demokratikoak zapaltzen jarraitzea, nazionalismo espainiarren bandera altxatuta, eta osasunaren eta hezkuntza publikoaren pribatizazioan, lan erreformetan eta lan prekariatatean sakontzea; eta berdin die Gobernua PSOEko parlamentarien abstentzioarekin lortu den edo hirugarren hauteskundeekin.

Euskal Herriko langile eta gazteok ondo dakigu zer den eskuineko gobernua izatea, bai Madrilen PPrekin, bai EAEn EAJrekin eta bai Nafarroan UPNrekin. Azken urte hauetan gogor jasan ditugu beren politikak eta hauen kontrako mugimendu indartsua eraiki dugu. Hauteskundeetan ere, gure altxamen-
duak aldaketa handiak ekarri ditu. Podemosen agerrerak edo EH Bilduri emandako babesak erakusten dute gizartea aldatzeko milaka eta milaka gazte eta langileok dugun borondatea. Hala ere, aldaketa hau ez da lortuko parlamentuetako eztabailetan, ezta hauteskundeetan emaitza bikainak lortuta ere.

Greziako esperientzia oso baliagarria da hau ulertzeko: greziarrek Syriza jarri zuten gobernuan, Troikaren inposizioen aurkako erreferendumean masiboki bozkatu zuten, baina Tsiprasek indar honi guztiari bizkarra eman eta botere ekonomiko handien aurrean makurtu zen. Greziarako balio duenak, Euskal Herriarako eta Estatu espainiarreko ere balio du. Kapitalismoak ez du funtzionatzen zentzu komunaren, logikaren eta gehiengoaren onuragarri denaren arabera. Enpresari handien eta bankarien interesen arabera funtzionatzen du, beraiek kontrolatzen dituzte Estatua eta botere politikoaren palankak. Inork aukeratu ez duen baina burdinazko eskuarekin agintzen duen elite pribilegiatuarekin hautsi ezean, diskurtso "aurrerakoiena" ere antzu geratzen da.

Mobilizazioa eta programa iraultzailearen defentsa

Eskuina eta bere erasoak garaitzeko bide bakarra daukagu: mobilizazio indartsu eta denboran luzatuko dena eta sufritzen ditugun arazoaren muinera joango den programa defendatzea, hau da, kapitalismoarekin amaituko duen programa iraultzailea.

11. ORRIAN JARRAITZEN DU

EZKER IRAULTZAILEA

**Defendatu sozialismoaren aldeko ideiak gurekin!
Lagun iezaguzu aldizkaria Euskal Herri osoan zabaltzen!**

www.euskalherriasozialista.net • euskalherriasozialista@hotmail.com • Tel.: 685 720 939
Twitter: @EHSozialista • Facebook: Euskal Herria Sozialista

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN! LAGUNDU LANGILEEN PRENTSA ZABALTZEN!!!
Lagun iezaguzu sozialismoaren aldeko borroka bultzatzen zure harpidetzarekin!!
Urteko harpidetzak (6 ale) 10 euro balio du.